



Espedientearen kodea: 2022HI410001

Espedientearen gaia: LIN-8 Arkotz H.I.A.ren hirigintza antolamenduko plan berezia aurkeztea.
MUNIGEX: 2021HI01030001 **Artxiboa:** Hirigintza 400/12

Titularra: VILLA CANDIDA SL

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Oihane Mallagaray Revilla, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023/03/14n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“VILLA CANDIDA SL ENPRESAK AURKEZTUTAKO LIN-8 HIA-REN HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIAREN HASIERAKO ONARPENA. 2022HI410001.

Villa Candida SL enpresak, LIN-8 Hirigintza Interbentziorako Arearen HIA) Hiri Antolamendurako Plan Berezia aurkeztu du, dagokion tramitazioa egin eta onartzea eskatuz. Hirigintza Batzordeak egindako diktamena ikusirik aho batez, bertan egindako proposamena onartzea erabaki da. Hau da:

Oiartzungo Udalak gaur egun indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onetsi zuen 2015eko martxoaren 25eko osoko bilkuran (2015eko maiatzaren 12ko GAO, 87. zenbakian, argitaratutako akordioa eta araudia). Plan Orokor horrek LIN-8 -ARKOTZ- eremua mugatzen du, hiri lurzoru bezala sailkatua eta hirugarren sektoreko erabileretarako kalifikazioarekin.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, Hiri Antolaketarako Plan Orokorrean (HAPO) LIN 8 eremurako aurreikusten den xehetasunezko antolaketa bideraezina egin du Astigarraga-Lezo trenbide berriaren azterketak. Baldintzatzaile horretara moldatzeko idazten da Plan Berezia, 19.548 m²ko azalera duen eremuan jarduera ekonomikoetarako 11.000 m²ko gehieneko orubean aurreikusten den 7.000 m²ko eraikigarritasuna antolatzeko.

LIN-8 -Arkotz- eremuarentzako aurkeztu den egitasmoa, Hiri Antolamendurako Plan Berezia da eta Plan Orokorrearen egiturazko antolamendua garatzea du helburu, Plan Orokorrak antolamendu hori atzeratzeko aukera ematen duen hiri-lurzoruko eremuen antolamendu xehatua ezarriz.

Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsulten izapidea burutu da.

Udal arkitektoak eta hirigintzako teknikariak egindako txostenen arabera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta ekonomia zirkularraren zuzendariak 2021eko irailaren 7an, Ingurumen ebaluazioa arautzen duen abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako Irismen Dokumentua igorri zuen ingurumen ikuspuntutik egitasmoa idazterakoan kontuan eduki beharreko aspektuak jasotzen zituena. Era berean, URA Ur Agentziak 2021eko urriaren 7an txostena eman zuen sustatzaileak horrela eskatuta txosten osagarria eman zuen eremuko b.2 orubearen lerroakaduraren inguruan.

Sustatzaileak 2021eko otsailaren 4ean LIN-8 -Arkotz- eremuko Plan Bereziaren hasierako onarpeneko egitasmoa eta Ingurumen-Azterketa Estrategikoa aurkeztu zituen. Udal arkitektoak txostena egin ondoren, 2022ko maiatzaren 10eko Tokiko Gobernu Batzarrak aipatu Plan Bereziaren hasierako onarpena eman zuen jendaurrean jarri eta alorretako txostenak eskatzea erabakitzearekin batera.

Jarraian Hizkuntza Inpaktuaren Ebaluazioa burutzeko tramitea burutu zen azterlana ez dela beharrezkoa ondorioztatu zelarik, 2022ko maiatzaren 16an egindako txostenean. Genero ikuspuntua integratzeko asmoarekin, 2022ko maiatzaren 16an txostena eman zen, eremuko urbanizazio egitasmoan eta orube pribatuen garapenean genero eraginaren ondorioak kontuan eduki beharko direla adierazten duena. Horrezaz gain, Jaurlaritzaren ingurumen organoaren Irismen Dokumentuan planaren hasierako onarpena jakinarazi beharreko aurretiazko kontsultetan identifikaturiko administrazio eta erakundeei agiria bidaltzeari ekin zitzaion.

Tramitazioarekin jarraitzeko, alorretako administrazioek txostenak eman ondoren, administrazio sektorialek ezarritako zuzenketa eta aldaketak nabarmenak zirela kontuan izanda, Udalak 2022ko irailaren 22an Plan Berezia osatu eta berriro aurkeztu beharko zuela adierazi zion sustatzaileari, aldaketa eta zuzenketa horien zerrenda helaraziz. Era berean, hasierako onarpenaren aurretik, “Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana”ri txostena eskuratu behar zenez, udalak 2022ko abenduaren 23an aipatu txostena eskatu zuen.

Bukatzeko, 2023ko otsailaren 20an sustatzaileak “Ministerio de Transportes”ren txostenari sarrera ematen dio, bertan irizpena aldekoa da baina dokumentuaren behin betiko onarpena eman aurretik txostenaren ondorioetako 4.4., 4.5. eta 4.6. ataletan adierazitako aldaketak jasotzen dituen behin betiko onarpenerako dokumentazio bidali beharko dela adierazten da. Horrekin batera, sustatzaileak hasierako onarpena eman dadin eskatzen du, 2022ko urriko data duen Plan Bereziaren egitasmoaren eta 2022ko azaroko data duen Ingurumen-Azterketa Estrategikoaren dokumentuekin batera.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, sustatzaileak 2022ko azaroaren 29an aurkeztutako dokumentazioan txostenetan eskatutako zuzenketak jaso dira (Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza, URA Ur Agentzia eta Garraio Ministerioa).

Horrenbestez, abenduaren 9ko Ingurumen Ebaluazioa arautzen duen 21/2013 Legearen, urriaren 16ko plangintza eta egitasmoen ingurumen-ebaluazio estrategikoa arautzen duen 211/2012 Dekretuaren, eta martxoaren 24ko Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 31.5 artikulua ezarritako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arrunta aplikatuz, honako akordioa hartzea proposatzen da:

LEHENA.- Oiartzungo LIN-8 -Arkotz- eremuetako Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onarpena ematea, Astazaldi arkitektoak 2022ko urrian sinatu Hiri-antolamendurako Plan Berezia eta Ekolur SLL.ek 2022ko azaroan sinatutako Ingurumen-Agiri Estrategikoa dokumentuen arabera.

Espedientea jendaurrean jartzea alegaziotarako 45 eguneko epea emanez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta tirada handieneko egunkari batean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Ingurumen-Azterketak laburpen ez teknikoa barneratu beharko du, 21/2013 Legearen 21 artikulua arabera eta Plan Bereziak laburpen exekutiboa jaso beharko du, 7/2015 E. Dekretu Legegilearen 25.3 artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluek jasotako edukiarekin.

BIGARRENA.- Hasierako onarpena eman ondoren URA Ur Agentzia eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari txostena eskatzea. Gainontzeko alorretako txostenak 2022ko maiatzaren 10eko hasierako onarpenaren ondorioz eskatu ziren eta aldaketa edo zuzenketarik proposatu ez zuten, egintzat ematea, dokumentuan ez dutelako aldaketa esanguratsurik suposatu.

HIRUGARRENA.- URA, Ur agentziak, 2022ko ekainaren 24ko sarrera data duen kontrako txostenean adierazi bezala, hasierako onarpenaren ondoren aldeko txostena emateko zuzendu eta bideratutako plana aurkeztu beharko da, honako zuzenketarekin:

- Eremuaren ipar-mendebaldean oinezkoentzako bidearen trazadura aldatzea, bidegorriak ibilguarekiko izan behar duen gutxieneko 5 metroko tartea betetzeko.



OIARTZUNGO
UDALA

LAUGARRENA.- “Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana” k 2023ko otsailaren 20an bidalitako txostenaren arabera, behin betiko onarpena eman aurretik txostenaren ondorioetako 4.4., 4.5. eta 4.6. ataletan adierazitako aldaketak jasotzen dituen behin betiko onarpenerako dokumentazio aurkeztu beharko duela eta udalak ministeriora bidali beharko du.

BOSTGARRENA.- Hizkuntza Inpaktuaren Ebaluazioari dagokionez, Irismen dokumentuak justifikatzen duenaren arabera, ez da hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar.

SEIGARRENA.- Genero ikuspegia integratzea dagokionari, eremuko urbanizazio egitasmoan eta orube pribatuen garapenean genero eraginaren ondorioak kontuan eduki beharko direla adierazten duena

ZAZPIGARRENA.- Partaidetzari dagokionez, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak 108-110 artikuluetan Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioak eta osaketa jasotzen du baina ez du garapen plangintzaren tramitazioari buruz aipamenik egiten.

ZORTZIGARRENA.- Plangintzaren xede diren lurraldeko eremuko onarpenak, baimenak eta lizentziak etenda geratzen dira, baldin eta horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUc9d7cabe-dd00-4e80-9572-3c00ec0e6509**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022HI410001-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (VILLA CANDIDA SL)